



DURANGOKO EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKAREN ARAUDIA.

Sarrera

Gerediaga Elkartea 1965. urtean durangaldeko eskualdearen kultura eta nortasuna zaintzeko, bultzatzeko eta ugaritzeko asmo finkoarekin sortu zen.

Asmo hau aurrera eramateko, urte berean, Euskal Liburu eta Disko Azoka antolatu zuenean, Gerediaga Elkartek euskalgintzan jardunean zebiltzanen liburu eta disko sektoreen topaleku izatea lortu nahi zuen, gizarteak euskara eta euskal kultura bizitzeko aukera izan zezan.

Urteetan zehar, bere helburu nagusia mantendu du: euskaraz eta euskal munduaz zerikusia duten argitalpenen erakusketa eta salmenta-gune izatea.

1. artikulua.

Gerediaga Elkartek antolatzen duen Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka, euskaraz eta euskal munduaz zerikusia duten liburu, disko, DVD, bideo eta aipatutako arlo horiei dagozkien beste euskarritan plazaratutako ekoizpenen erakusketa eta salmentarako Azoka da.

Beraz:

- a) Liburuen arloan zalantzarik gabe lehentasuna euskarazko ekoizpenek dute. Hala ere, beste hizkuntzetan ekoizitakoak izango dute tokia, euskal munduaz zerikusia badute.

Literatura lanetan (eleberria eta poesia), lanaren jatorria euskara izanik, edozein hizkuntzara itzulitakoak onartuko dira.

- b) Disko arloan eta antzeko euskarrietan, euskarazko ekoizpenek lehenesten dira, beste hizkuntzak tartean dituzten ekoizpenak ere



onartuak izango direlarik, betiere helburuaren esparru barruan kokatzen badira.

Musika hutsez osatutako diskoetan, euskal musikarien lanak ere onartuko dira.

d) Lehenengo lerroaldeetan aipatu ez diren materialak Azokan aurkeztea eta saltzea debekatuta dago, nahiz eta beraien promoziorako kaleratuak izan (merchandising adibidez).

2. artikulua.

Antolaketa Gerediaga Elkartearen erantzukizuna da.

3. artikulua.

Argitaletxeen eta diskoetxeen argitalpenak beraien stand-ean eta ordezkari duten stand-etan salduko dira. Argitaletxe edo diskoetxe batek baino gehiagok, elkarlanean argitaratutakoak, partaideen stand-etan saldu ahal izango dira.

4. artikulua

Banatzaileek beraien kabuz badatoz, deskatalogatutako materiala eduki dezakete salgai, baita parte hartzen ez duten ekoizleenenak ere.

Banatzaileek, Argitaletxe edo Diskoetxe baten ordezkariak izan daitezke azokan baldintza hauetan:

a) Stand-a argitaletxe edo diskoetxe horren izenean egongo da.



- b) Azoka aurretik, argitaletxe edo diskoetxetik, Gerediaga Elkarteak, banatzaile horren ordezkartza baieztapen duen idatzi bat izan behar du .
- d) Argitaletxe edo diskoetxeak Azokarako baimendutako materiala edukiko dute salgai.
- e) Argitaletxe edo diskoetxe baten produktu berdina ezin da bi banatzaile ezberdinen stand-ean agertu.

5. artikulua.

Stand bat alokatu ahal izateko, argitaletxeek, diskoetxeek zein banatzaileek baldintza hau bete behar dute: gutxienez sei liburu, disko, DVD, bideo edota antzeko argitalpenak katalogoan edukitzea.

6. artikulua.

Erakunde publikoei, profesionalei eta gainontzekoei dagokienez, aurreko baldintza betetzea zalantzazkoa denean, Gerediaga Elkarteak erabakiko du.

7. artikulua.

Gerediaga Elkarteak erabakiko du urtero stand-en errentaren prezioa.

Partaideek errentan hartutako standa-k, antolatzaileak jarritako epean ordaindu beharko dituzte.



8. artikulua.

Gerediaga Elkartek argitaratzen duen Katalogoa osatzeko, argitaletxeek, diskoetxeek eta banatzaileek, antolatzaileek eskatutako informazioa bidali beharko dute jarritako epean eta behar diren berezitasunak aipatuz.

9. artikulua.

Argitaletxe, diskoetxe eta banatzaile guztiek urte osoan argitaratutako argitalpen bakoitzaren bina ale, -liburu, disko, bilduma, DVD, bideo etab-, emango dizkiote Gerediaga Elkarteari. Ale horiek, printzipioz, Gerediaga Elkartearen artxiboa osatzeko eta Durangaldean zerbitzu publikoa eskaintzeko erabiliko dira.

10. artikulua.

Azokara datorren argitaletxe, diskoetxe eta banatzaile bakoitzari Azokako katalogoaren bina ale emango zaizkio.

11. artikulua.

Argitaletxe, diskoetxe eta banatzaileek, adostutako beherapena ezarriko die Gerediagako bazkideei Azokan salgai jarritako ekoizpenetan.

12. artikulua.

Argitaletxe, diskoetxe eta banatzaileek katalogoan adierazitako salneurrian salduko dituzte ekoizpenak.



13. artikulua

Araudi honetan aipatutako baldintzak bete ezean, Gerediaga Elkarteak eskumen osoa izango du stand-en erreserba ziurtatzeko eta are ukatzeko. Edozein ustekaberen aurrean, bestalde, Gerediaga Elkartearen ebazpenak erabakiko du.

Astolan, 2009ko Abuztuaren 26an